

# Eleberri bat galerari

Alex Gurrutxaga

Elkar etxea pixkanaka osatzen ari den Urrezko Bibliotekan argitaratu berria dute 15. liburua. Bilduma horretan, orain urte batzuk euskarara ekarritako lanak aurki ditzake irakurleak, jada eskuragai ez zeuden liburuen edizio berriak.

*Finzi-Contintarren lorategia* (1962) Giorgio Bassani (1916-2000) italiarraren eleberri ezagunena da. Bere garaian Viareggio saria irabazi zuen, eta 1970ean Vittorio de Sica pantaila handira eraman zuen –filma ere lortu zuen sari potolirik–. Eleberria 1997an agertu zen lehen aldiz euskaraz, Koldo Biguriren itzulpenean. Beste lan ugari ekarri ditu Bigurik italiarrik eta, konparazio zehatzik egin gabe ere, ausartuko nintzateke esaten itzultzaileak egoki birsortu zuela euskaraz Bassaniren estilo zaila.

Idazle, erredaktore eta editore aritu zen batez ere Bassani. Edizioaren alorrean ezaguna da G. T. Lampedusaren *Il Gattopardo* argitaratzea lortzeagatik –estiloz Bassaniren gertuko, eta hori ere



## 'Finzi-Contintarren lorategia'

**Idazlea:** Giorgio Bassani. **Itzultzailea:** Koldo Biguri. **Argitaletxea:** Elkar.

Bigurik euskaratua–, eta idazle gisa, berriz, Ferrarako eleberrien zikloak kokatu zuen kanonean. Ziklo horretako lana da *Finzi-Contintarren lorategia*.

Ferraran gaude, bi mundu gerraren arteko aroan. Narratzailea bera da protagonistetako bat, Giorgio, eta bere oroitzapenak dira irakurrikot ditugunak. Lehen Mundu Gerraren garaian jaiotako belaunaldia da bera, gaztaroa faxismoaren garaian bizitako Bigarren Mundu Gerrak brastakoan eten ziona. Gainera, protagonisten komunitate judua da –judua zen Bassani bera ere–, eta horrek, esan gabe doa, are markatuagoa bihurtzen du egoera.

Lorategia eleberriaren epizentrotza da nolabait –barruak eta kanpoak bat egiten duten tokia–, eta haren inguruan mugitzen dira Ferrarako familiak eta lagunak. Giorgioek ez ditu bere kontuak bakarrik gogoratzen; guztiz bestela, lekuko gisa, Finzi-Contintarren eta beste hamaika pertsonaren nondik norakoen berri ematen du, hari intimoak eta sozialak uztartuz. Batetik, trama-aren gune zentral gisa, Giorgio Micolen daukan harreman afektiboa dago, pixkanaka endekatzen joango dena, modu tragi-

koan deuseztatu arte. Bestetik, hondo politiko-historikoa ikusten dugu, zuzenean nahiz zeharko dena blaituz. Politikari buruzko elkarriketak ugariak dira, hala nola Malnate komunistarekin; literatura eta artea, berriz, mintzagaiak usu, gazteen arnagune modukoak dira, baina ez diete iheserako balioko.

Thesbiderik gabeko gizarte baten erretratua da nobela, izan ere, eta tonu orokorra melankolikoa da –hasi eta buka, presente dago heriotza–. Galera anitzten eleberria da: gaztaroa, demokrazia... eta protagonista nagusiak, munduaren gainbeheraz jabetuta, oroitzapenetan eta iraganean murgiltzen dira.

Bassaniren eleberriaren trama aberatsa eta konplexua bada, areago dira bere kontateknika eta estiloa. Beste gauzen artean, pertsonaien gogoetak eta elkarriketak kontakizunean txertatzeko modua azpimarra daiteke. Zehar estiloa eta zehar estilo librea erabiliz narratzaileak ahotsa ematen die beste pertsonaiei, eta, ahoz-kotasun kutsua galdu gabe, dotorea da kontamoldea.

Trama mamitsuari, pertsonaia ongi karakterizatuei eta estilo landuari esker, eleberri bikaina da *Finzi-Contintarren lorategia*.



## 'Nikolas Seguroa. Fraide, artzain eta bertsolari'

**Egileak:** Xabier Euzkitze, Iñaki Beristain eta Eduardo Urarte.

**Argitaletxea:** Edizio frantziskotarrak.

Nikolas Seguroa (Matxinbenta, Gipuzkoa, 1939) Arantzazuko fraidea, artzain gaztagilea eta bertsolaria da. Liburu batean jaso dituzte haren bizitzako hiru alderdi nagusiak. Euzkitzek, Beristainek eta Urartek egin dituzte testuak, eta Seguroaren garai ezberdinak irudiek osatu dute lana.



## 'Ryookan-en 101 haikuak'

**Idazlea:** Ryookan Taigu.

**Itzultzailea:** Josu Jimenez Maia.

**Argitaletxea:** Denonartean.

Ryookan Taigu (1758-1831) Japoniako monje budista eta poetaren haikuak bildu ditu Denonartean-ek liburu batean, Josu Jimenez Maiak euskaratuta.

Itzulpenarekin batera, haikuen japonierazko testua eta haien grafia latinozko bertsiola plazazatu dituzte lanean.



## 'Xalbador azken bidean'

**Egilea:** Lucien Etxezaharreta.

**Argitaletxea:** Maizt.

Xalbadorren hiletan egunaren kronika egin du Lucien Etxezaharretak. Poema itxurako testuez eta zuri-beltzeko hamai-ka argazkiz hornitua, bertsolariaren baserria, gorpuaren garraioa, hiletan elizkizunak eta ehorzketa-aren uneak jaso ditu.

# Euskal zientzia-fikzioa

## HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Ipurbeltz irakurtzen nuen nik txikit. Haurtzaroak irau zidan denbora guztian, esango nuke. Eta sekulako gozatua hartzen nuen. Orduanik gustatzen zaizkit komikiak. Eta agian horregatik hunkitzen nau hainbeste esku artean dudana *Jon eta Mirka*-k.

Halako obrek in egin nuen jauzi nerabezarora. Ordurako begiak erreak nituen Asterix-ak, *Tintin*-ak, *Mortadelo*-ak eta enparauak irakurtzen, *Ipurbeltz*-ekin aski ez eta. Segidan irentsi nituen eskuratzen nituen erdal *Joyas literarias* guztiak, (Donostiako *Konsti* plazako bigarren eskuko azoka horrek zenbat atsegin eman ez

ote zizkidan), baina, ospela!, Harrietten ekimenez sortutako obrek zuten kalitateak liluratu egiten ninduen.

Orain badakit *Ipurbeltz*-eko *Iker* eta *Ixone* Murok idatzi eta ilustratu zuela, eta orain badakit zergatik iruditzen zitzaidan neska mutiko horien abenturak oso



## 'Jon eta Mirka'

**Idazlea:** Gregorio Muro Harriet.

**Ilustratzailea:** Daniel Redondo.

**Itzultzailea:** Arkaitz Almoriza.

**Argitaletxea:** Harriet.

gustagarriak zirela. Gidoigilea, jakina... Eta 3 *sudurtzeak* abenturatan ere Muro gidoigilea izan zen... klaro. (Bide batez, Gregorio Murok askotan bere bigarren abizenarekin sinatu izan du: Harriet; eta hain zuzen, bere argitaletxeak izen hori berori du).

Baina, hel diezaiozun behingoz mamiari.

Jon eta Mirkarekin egin ziren bi abenturak topatzen ditugu liburuan. Lehengoan pertsonaiak aurkezten zaizkigu, Lurra gure planetan girotutako abentura batean. Bigarren abentura espazioan zehar gertatzen da, hainbat planeta tarteko. Bi kontakizunetan landaredi oparoz eta animalia handiz inguratuta gaude, itsaspean sarri, testuinguru erabat exotikoan kokatuta.

Zientzia-fikzioa deitzen zaion literatura moldean eginak dira –80ko hamarkadan oso modan jarri zuten komiki estiloon–, baina sexurik eta gehiegizko biolentziarik gabe.

Pertsonaiak eta euren testuinguruak ekingizetan aurkezten zaizkigu. Agertzen diren hausnarkeak –beti dago moral bat idazlearen luman, ezta?– dinamismo horretan aurkezten dira: zabor

nuklearra, kolonialismoaren bigabekeriak... Eta hain zuzen, horixe du gaitasun handiena eta herren egiteko lekua: lehen orrialdetik hasi eta azken binetara arte ez dago aspertzeko tartirik, baina amaierak zalaparta horretan galtzen dira, eta abentura osteko ondorioek arnasa apur bat gehiago merezi zutela sentitzen da.

Dena den, gidoiak bezala testuak ere kalitate handia erakusten du, hitz gutxirekin istorio trinkoa eraikitzen asmatzen duelako.

Irudien bidez egin den lana –letretatik bereizi ahal balezat– sotila da marrratan, eta bolumenak eta materiak koloreztatzearen bidez sortzen dira. Emaizta guztiz eraginkorra da, izaki eta leku erabat ezezagunak egiantzekotasun osoarekin agertzen baitzaizkigu begi-bistan. Arrangura bat izatekotan, aurpegien keinuekin gertatu zait, batzuetan ez bainien antzematen adierazi beharko luketen emozioa.

Esanak esan, lagun, ez bazenuen ezagutzen, bada garaia eskual komikigintzaren goi mailako obra honi astindua emateko. On egin!